

MUXIKA » INAMA

## SOS Muxika: «Gezur asko indarra galtzen hasi dira»

Plataformak Inamako kudeatzailearen kontraesanak salatu ditu

### DANEL LAUZIRIKA

Iragan ostiralean Jose Manuel Sanchez Finsa-Inama enpresako kudeatzaileak inputatu gisa deklaratu behar izan zuen Gernika-Lumoko epaitegian, SOS Muxikak jarritako salaketa baten ondorioz. Deklarazio horretan Inamako kudeatzailea kontraesanetan erori zela nabarmendu du egunotan SOS Muxikak.

Inamari ingurugiroaren aurkako delitua egitea eta osasun publikoari kalte egitea leporatzen dio elkarteak. Deklarazioaren baitan Sanchezek Inama «atmosfera kutsatzeko ahalmena duten enpresen zerrendan» dagoela onartu zuen.

SOS Muxikakoen ustetan, Sanchezen deklarazioak Inamaren jardura batzuk legez kontrakoak direla agerian utzi du. Muxikako herritarren plataformako arduradunen esanetan, «Inamako kudeatzailearen deklarazioa entzunda Muxikan eta Gernikan erabili diren gezur asko indarra galtzen hasi direla konturatu gara».

«Gezur horietako bat tximinietatik irtetzen den kutsadura atmosferikoa ur lurruna bakarrik dela dioena da. Kudeatzaileak epailearen aurrean ur lurruna bakarrik ez, beste gauza asko ere kanporatzen direla onartu behar izan du».

Epaileak Inamako tximiniek zer kanporatzen duten galdetzerakoan, Sanchezek «tximinietatik irtetzen dena ur lurruna da» erantzun zuen. Ondoren, beste galdera bati erantzunez kudeatzaileak Inamak isurtzen dituen «gasak ur lurruna, motoreetatik isurtzen diren gasak eta ahuts-konbustioko gasak» direla adierazi zuen.

### Baimenik ez

Inama ondoan bizi direnentzako enpresak gas horiek isurtzea «ez dela ona» aitortu zuen Sanchezek.

SOS Muxikakoen ustetan, «Inamako kudeatzaileak enpresak gauzatzen dituen isurketa atmosferikoak egiteko baimenik ez duela onartu behar izan du barikuko instrukzioan».

SOS Muxikako abokatuaren galdera bati erantzunez, Jose Manuel Sanchezek «orain dela urtebete Ingurumen sailari isurketa guneak legeztatzeko proiektua aurkeztu genion» adierazi zuen.

Kudeatzaileak instrukzioan bertan adierazi zuenez, «orain proiektu osatuagoa berridatzi du Herrialde Katalanetako AMBIO enpresak, eta egun gutxi barru aurkeztuko du».

© Busturialdeko Hedabideak S.L.  
Tel.: 946187299 Faxe.: 946881193  
E-posta: [busturialdea@busturialdeko-hitza.info](mailto:busturialdea@busturialdeko-hitza.info)  
Zubiaurtar Kepa, 72 Bermeo



Internet Ehuntzen S.L.-k garatutako webgunea